



TopaGune ikastaroa: Ekintza komunitarioa Gipuzkoan: nola lan egin dezakegu elkarrekin lurraldean?



Ira. 10 - Ira. 11 2024

Kod. G23-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 10 - Ira. 11 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Aurtengo ediziorako **lurraldea ardatz** izatea proposatzen dugu. Lurraldea ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dugu, bereziki, gizarte azpiegitura edo komunitarioaren zentzuan oinarritu nahi dugu.

Izan ere, azpiegitura sozial edo komunitario bat pertsonen arteko harreman etengabeak edo errepikakorrak errazteko pentsatutako azpiegitura fisiko moduan ulertzen dugu. Lurralde planifikazioaz ari gara, ekipamendu eta espazio publikoez, eta horien diseinuaz. Gizarte azpiegituraren kontzeptua berriki proposatu du E. Klinenberg-ek, eta esaten digu gizarte azpiegitura dela kapital soziala sortzen duen azpiegitura fisikoa. Gure gizarte harreman kopurua, barietatea eta aniztasuna, gure kapital soziala, funtsezkoa da gure garapen pertsonalerako eta gure ongizate erlazional eta materialerako.

Eskolak, kiroldegia, liburutegiak, gizarte etxeak, parkeak eta plazak pentsatu, diseinatu eta antolatuta daitezke, jendea bertan elkartu eta harremanak izatea errazteko. Harreman horretatik abiatuta, harreman hori ohikoa edo errepikatua denean, bizilagunen arteko ezagutza eta errekonozimendua, mehatxu partekatuen aurrean elkartasuna eta, azken batean, gizarte kohesioa aktibatzen duten loturak sortzen dira.

Liburutegiak, kultura eta hezkuntza zentroak edo espazio publikoak eraiki daitezke, erabiltzaileen arteko harremana, lotura eta ekintza bateratua zein zerbitzuaren efizientzia eta eraginkortasuna edo kalitatea kontuan hartuta.

Kontua ez da nahitaez eraikin berriak eraikitzea, baizik eta egungoei asmo hori ematea. Horrek aldaketak eska ditzake espazioaren diseinu fisikoan eta, batez ere, zerbitzuak antolatzeko eta emateko moduetan harremanak heldu, lagundu eta errazteko.

Ikastaro hau TopaGune motatakoa izango da. Izen hau, partaidetza maila altuena eragiten duten ikastaroei ematen zaie. Kasu hauetan ikastaroen zuzendariak, UIKko zuzendaritza akademikoak eta ikastaroan erraztatzaile lanak egingo dituen pertsonak elkarrekin diseinatzen dituzte eraginkorrenak izango diren teknikak ikastaroa parte hartzailea izateko.

Helburuak

Inspiratzaileak izan daitezkeen adituen eta arituen esperientziak ezagutzeko espazioa sortzea.

Lurraldean ekintza komunitarioaren arloan lanean ari garen eragile ezberdinen arteko elkarriketarako topaleku bat sortzea.

Elkarlanerako bideak zabaltzea.

Lankidetzak



Zuzendaritza



Mikel Pagola Tolosa

Gipuzkoako Foru Aldundia



Miren Arbelaitz Garcia

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua - Servicio de Participación Ciudadana

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-09-10 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzia	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa